

Kultura-agenda irratsaioa 3.mp3

Kultura-agendarekin bukatzeko, dantza, bertsolaritza eta ikus-entzunezko ekitaldi batzuk aipatuko ditugu. Abuztuaren hogeita hamarrean, Haatik dantza konpainiak "Errimak bi oinetan" eskainiko du Amezketan, gaueko bederatzi eta erdietan. Hurrengo egunean, Sopelan, bertsolaritza izango dugu arratsaldeko seietan, eta Agurainen eta Bergaran bi film emango dituzte; Agurainen "Black is beltza" jarriko dute irailaren bian, gaueko zortzietan, eta Bergaran, irailaren lauan, Lander Garroren "Bi urte, lau hilabete eta egun bat" eskainiko dute, intsumisioari buruzko filma, arratsaldeko bostetan.

Hauxe da asteak eskainiko diguna. Disfrutatu kulturaz, eta datorren astera arte!